

BEZEROEKIKO HARREMANA

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Bezero berriak erakartzeko sare sozialen bidez iragarriko gara eta teknologia berria eta erabilgarria denez, bezero askoren interesa piztuko dugu.

Gure bezeroak mantentzeko, saskia apurtzean edo funtzionatzen uzten badu, enpresa horrek bermea izango du eta kostu horiek estaliko ditugu. Gure enpresak handizka saltzen duenez, zenbat eta saski gehiago erosi, orduan eta gutxiago kostatuko da.

Produktua diseinatuta dago negozioa batzuentzat; Supermekatuak, bazar handiak... Industria horrean aritzen direnei (saskiak behar dituzten enpresei). Honekin esan nahi duguna da, bezero arruntei ez zaiela gure produktua salduko.



Esan dugun moduan, bezeroak mantetzeko hainbat baliabide erabiliko ditugu, eta gurekin kontaktuan jartzea ez du ezer ez esan nahi, informazio bila bazaude eta erosketa posible batez hitz egiten badugu, ez da ezer ordaindu behar sarrera moduan ez ezer, hori geroago etorriko da erostea erabakitzen baduzu.

Bezeroekin kontaktua dugun heinean, hautazko da zer modu erabili horretarako, online, aurrez-aurrekoa, etab.